


Euskal Kirolak



TXIRRI FRONTOIA LUIS TELLERIAK EGINA

KIROLAK, DESAFIOAK ETA APUSTUAK

Euskal kirola jokoa da eta baita lana ere. Desafio edo norgehiagoka hauek eguneroko zenbait egitekorekin lotura zuzena dute. Lana lanaren gainean, beraz, gure kirolak egin ahal izateko beharrezkoak diren tresnak lantzen dituzten artisauen eskuetan hasiera duen lana.

Herri honek aparteko abildadea du edozein norgehiagoka, trebetasuna, azkartasuna nahiz indarra neuritzeko, apustu bihurtzeko. Ume-umetatik hasten dira euskaldunak “Zer jokatzen duk/n” esaldia ahoan dutela, beti desafiorako prest. Jokoa, apustua, norgehiagoka, parte hartzeko modua da.

Horrelaxe jaio ziren herri kirol gehienak: bi lagun edo gehiagoren artean apustua egiten zuten zeinek enbor gehiago moztu (aizkorarekin “**aizkolariak**” edota zerrarekin “**trontzalariak**”), zeinek harri astunagoak jaso (“**harrijasotzaileak**”), zeinek belar gehiago moztu (“**segalariak**”), zeinek harri handiagoak mugitu (“**idi-proba**” edo “**gizon proba**”), zeinek txinga astunagoak eraman batetik bestera (“**txingalariak**”)... Joko guztiak baserri girokoak eta banakakoak, gaur egun ere nahiko ezagunak direnak.

Herri gehienetako festetan era honetako probak antolatzen dira eta urtean zehar desafio galantak prestatu ere bai aizkoran nahiz harrijasotzen, komunikabideetan oihartzun garrantzitsua izaten dutenak.

Aipamen berezia merezi duelakoan gaude artzain txakurren lehiaketak, herri honen artzantzarako tradiziotik datozenak. Ezagunena, 1959an hasita, Oñatin udazkenero ospatzen dena dugu. Euskal Herri osoko jendea inguratzentz da herri honetara eta bertan saritzen da ez bakarrik txakurraren trebetasuna, baita, eta batez ere, txakurra eta nagusiaren arteko elkar ulertze erabateko. Ikusgarria da.

Kostaldera jauzi eginez, bertako herrienzako ohorea da traineru txapelduna edukitzea: “**estropadak**” dira udako kirol egutegian jaun eta jabe. Eguneroko probak hasieran, Donostiako Banderaren kanporaketak ondoren, eta azkenik hirira milaka lagun zaletu, beren elastiko, ikerriña, korneta eta guzti erakartzen duten finalak. Traineru txapeldunaren partaideei harrera beroa eskaintzen zaie beren herrian. Orio, Zumaia, Getaria, Hondarribia eta Donostiako traineruak izan dira gipuzkoarren artean gehien nagusitu direnak, behin norberaren herrialdeko nagusitasuna lortuta bizkaitarrekin norgehiagoka aritzeko.

Estropadetan ere, gainerako kiroletan bezala, apustu ugari egiten da, aztertzeko moduko fenomenoa dugu hau. Gipuzkoarrak kirolzaleak dira, baina, badirudi, lehiak erakargarriagoak zaizkiola tartean txanpon batzuk badaude. Kirola-apustuaren arteko lotura estu honen beste adibide nabarmena txirrindularitzan dugu. Denok dakigun bezala, herri honetatik txirrindulari ospetsuak atera dira, eta bertan antolatzen diren probak nazioarte mailakoak dira (Euskal Heriko Itzulia, Donostiako Klasika, Euskadiko Sei Orduak). Zaletasun honen omenez abiatu zen Frantziako Tour-a Gipuzkoatik 1992an. Urteko hiru Itzuli handiek jarraitzaile sutsuak dituzte hemen: tabernak jendez gainezka egoten dira arratsaldeko lehen orduetan etapa amaierak ikusteko, eguneroko jarduna eten egiten dela esan daiteke garai honetan, irratiak piztuta, eta adierazgarriak diren “porrak” antolatzen dira lantoki, taberna, etxeetan...

Pilota da beste kirol arrakastatsuetako bat. Egunero daude partidak, modalitate desberdinietan (eskuz, palaz, erremontez edo xisteraz) eta kategoria desberdinetakoak. Herri bakoitzak badu bere frontoi publikoa, zenbaitetan baita beste pribaturen bat ere, jokatu eta entrenatzeko. Oso berezia da frontoietako apustuen kontua. Dirua jokatu nahi duenak idatzi egiten du paper batean zenbat diru jokatu nahi duen (adibidez, mila bost milaren aurka gorrien alde) eta papera gomazko pilota baten barruan sartu eta kantxan dauden artekari horietako bati jaurtitzen dio. Honek pape-ra irakurri eta mezua kantuan ematen du apustuari heltzen dionari pilota itzultzeko. Operazioa itxita geratzen da.

Begiratu batean ematen du dirua xahutzeko modu egokia dela hau, baina ez da horrela. Ikuskizuna gozatuz egiten da apustua zentzuzko dirukopuruak erabiliz. Apustuak handiagoak eta ugariagoak izaten dira izen handiko txapelketa edo urteko buruz buruko finalean.

Kirol arloari helduz, gazte-gaztetatik hasten dira herriean pilotan entrenatzen, eta beren lehenengo saiakerak alebin, infantil eta gazteen mailetan egiten dituzte geroago izar bihurtuko direnak.

Mendizaletasuna ere aipatu beharra dago gure kirol zaletasunen artean. Garai eta erlilio guztietan mendiak esanahi pribilegiatura izan du, jainkoen bizitokia eta eliza nagusienen kokalekua izan baita. Gaur egun oraindik, nahiz eta sinesmen eta fede kontuak pisurik izan ez, euskalduna irrikiz igotzen da mendi tontorretara, bere barnean duen behar sakon bat, agian panteismoarekin lotura duena, ase nahian. Onartu beharrean gaude mendizaletasuna kirol soila baino zerbait gehiago dela guretzat.

Aizkolariak, trontzalariak, harrijasotzaileak, segalariak, idi-proba, gizon-proba, txingalariak, estropadak, txirrindulariak, pilotariak, mendizaleak... denak dira euskal arimaren adierazle.

Antxon Agirre Sorondo

INGUDE ALTXATZEA

Burdinezko ingudea altuera zehatz bateraino zeinek gehiagotan altxatu da kontua. Txapelketan erabiltzen den ingudeak, gizonezkoentzako, 18 kilo pisatzen ditu, eta emakumezkoentzako, berriz, 10 kilo. Probaren denbora 1,30 minutukoa da. Goiko muga kirolariaren garaiera baino 30 cm gorago jarri behar da eta altxaldia baliozkoa izan dadin kolpatu egin behar ditu goiko muga eta oinarria.

LASTO BOTATZEA

Lasto fardoa listoi baten gainetik pasatzea da kontua, horretarako sardea erabiliz. 12-13 kiloko lasto fardoa izaten da, estu-estu lotuta eta sare batean bilduta lastorik ez galtzeko. Listoia pixkanaka goraka altxatzen joaten dira era honetara:

- 30 zentimetroka 3,40 metrotik 4 metrora bitartean
- 20 zentimetroka 4 metrotik 5 metrora bitartean
- 10 zentimetroka 5 metrotik gora

Altuera bakoitzean hiru altxaldi baimentzen dira eta huts eginez gero, parte-hartzailea kanporatu egiten da eta altuera handiena lortu duena izango da garaile. Berdinketaren kasuan, probaren hasieratik jasoaldi gutxienarekin altuera gehien hartzea lortu duen parte-hartzailea izango da garaile.

LASTO FARDOA JASOTZEA

Lasto fardoa altuera zehatz batera zeinek gehiagotan altxatu da kontua, horretako polea bat erabiliz. Gizonetako kasuan, fardoak 45 kilo izango ditu eta sokak 7 metroko ibilbidea egin ahal izateko moduan jarriko da polea. Emakumezkoen kasuan, fardoak 30 kilo izango ditu eta sokak 5 metroko ibilbidea egin ahal izango du. Polearen diametroak 300 mm izango ditu gehienez kanpoaldean, eta 200 mm gutxienez barrualdean. Sokak gutxienez 30 mm-ko diametroa izango du eta gehienez 35 mm-koa.

Kirolariak bi oinak lurrean dituela hasiko da proba eta 2 minutuko denbora izango du amaitzea. Denbora horretan zenbat jasoaldi egin dituen kontatzen da. Jasoaldia balekoa izan dadin beharrezkoa da fardoak lurra ukitzea eta sokaren korapiloak, berriz, polea. Jasoaldia balekotzat hartuko da korapiloak polea ukitzen duenean.

TXINGAK

Esku banatan pisua (txinga) eramanez, denboraren mugarik gabe, zeinek ibilbide luzeagoa egin da kontua. Distantzia “iltzetan” neurten da eta iltze bakoitzak 28 metro ditu, guxi gorabehera.


SOKATIRA

Sokaren alde banatan zortzi laguneko taldea jartzen da, pisu jakin bateko, eta sokari tiraka, talde batek bestea arrastaka eramatea da kontua. Zoru gogorrean (frontoia edo antzekoa) nahiz bigunean (lurra edo belarra) joka daiteke.

Testigantza grafikoetan ikus daitekeenez, Jesukristo aurreko 2500. urtean, jadanik, praktikatzen zuten kirol hau Egipton. Eta Olinpiaden herrian, Grezian, Jesukristo aurreko 500. urtean praktikatzen zuten kirol bezala nahiz entrenandu gisa, borroka edota jaurtiketarako giharrak lantzeko helburuarekin.

Txinan, XII. mendean, sokatira praktikatzen zen Gortean. Europako lehenengo erreferentziak Eskandinaviatik datorzkigu 1000. urte inguruan.

Parisko Joko Olinpiko modernoetan onartu zuten kirol gisa. 1920. urtetik aurrera, kirol modalitate ugari zegoenez,



Goirigotzarri, famoso “txinga-erutelari”, campeón en el I Ferial Agrario de Vizcaya.

batzuk kanpoan utzi zituzten, eta horietako bat sokatira izan zen.

Euskal Herriari dagokionean, ez dugu beste garai batzuetako erreferentzia idatzirik, baina maiz agertzen da XIX. mende amaierako festetako egitarauetan. Baserri giroko lekuetan egiten ziren eta, beraz, ez dirudi kanpotik etorritako kirol bat denik.

Orain dela urte gutxi arte arautu gabeko kirola zen. Argazki zaharretan ikus dezakegu taldeak hamar eta gehiago lagunekoak ere izaten zirela eta teknika oso antzinakoa, tiratzaileak sokaren ezker-eskubi jarrita, baita arerioei bizkarra emanda ere zenbaitetan. Ez zegoen prestakuntza fisiko egokirik eta jendea aukeratzeko erabiltzen zen irizpide nagusia pisu handikoa izatearena zen.

1978an Nazioarteko Federazioarekin harremanetan jarrita, araudiak itzuli ziren, entrenatzeko sistemak ekarri eta baita oinetako bereziak ere. Euskal jokalariek ohitu egin behar izan zuten zoru bigunean tiratzen, ordurarte frontoi eta plazetan ibiliak baitziren. Geroztik beti izan dira euskal taldeak Europa eta Mundu mailako lehiaketetan.

TOKA

Sagardotegietako jokoa da hau, bertan ibiltzen baitziren arratsalde pasa joaten zirenak. Antzinako jaurtiketarako jolasetatik dator joko hau, punteria neurtzeko egiten zirenetatik. Jolas simplea da, baina euskaldunek eman diote beste leku batzuetan antzeko jolasek ez duten berezitasuna, izan ere, kilo laurdena pisatzen duen burdinazko fitxa bat hamaika metrotik gorako distantzia batetik jaurtitzeko nahitaezkoa da indar fisikoa izatea.

1900etik 1936ra 200dik gora tokaleku zeuden donostialdean. Lehiaketa ofizialak eta apusturik garrantzitsuenak Groseko depositutako sagardotegian izaten ziren, gaur egun Donostiako Pinuen plazan. Hernanin, orain dela ez urte asko, BUSKANDOn jokatzen zen merienda eder baten inguruau.

Honako hauek dira jokoaren ezaugarriak:

11-20 metroko distantziatik jaurti behar da; burdinaren luzera 45 cm-koa da eta lodiera 25 mm-koa; fitxak 60mm-ko diametroa du eta 14-16 mm-ko lodiera.

TOKA HERNANIN

JOXE MARI ERDOZIA:

Gipuzkoako txapelduna behin baino gehiagotan, Manuel Matxain lagun duela. Donostiako toka txapelketan garaile 1965ean.

MANUEL MATXAIN:

Gipuzkoako txapelduna 1964an. Errekorrak: 6na fitxako 6 tiralditan 28 kolpe, Aieten, 1968ko irailean. 1962an, Loiola auzoan, 16 kolpe eman zituen 6na fitxako 3 tiralditan.



Ignacio Lasa, en el campo de fútbol de Andoain (14 julio 1929).

SEGA

Baserrietako lanik nagusienetakoa belarra moztea zen, ikuiluko ganaduari jaten ona eman ahal izateko. Kontuan izanik Euskal Herriko lurra oso malkartsua dela, ezinezkoa zen askotan tresna mekanikoak erabiltzea, beraz, segaren beharra nahitaezkoa zen. Lana zen hau, beste herri kirol gehienetan bezala, kirol bihurtu zen.

Sega-orriak hiru zati ditu estuenetik zabalenera, eta zabalenetik ateratzen da gako bat kirtena bertan sartu ahal izateko. XIX. mendearren amaiera bitarteko orriak gaurkoak baino txikiagoak ziren (80-95 cm-koak). Hogeita hamargarren hamarkadan lehiaketetan erabiltzen zirenak 120 cm ere izaten zituzten, eta gaur egungoek, berriz, 110 cm-koak dira. Orria objektu gogor baten kontra jota hondatzen delarik, mailubatekin ingudearen gainean joz konpontzen da.

Sega-kirtenaren tamaina aldagarría da segalariaren tamainaren arabera. Tamaina egokia denean, goiko aldea erabiltzailearen besapera iristen da eta behoko heldulekua, berriz, eskuaren parean gelditzen da (besoak luzetaka jarrita).

Segapotoa, zorroztarria gordetzeko zorroa, egurrezkoa da, gaztain egurraz edo altzaz egina. 25 cm-ko luzera du eta barruko aldetik 25 cm-koa. Azpiko aldetik 8-10 cm-ko zabalera eta goiko aldetik, berriz, 6 cm-koa. Kanpoaldetik badu euskarri bat gerrikoan lotuta ibili ahal izateko. Era honetara, urez betetako segapotoa, harria beti bustita egon dadin urez betetzen baita, beti dago segalariaren eskura.

Kirol honetan erabiltzen den beste tresna bat eskuarea da, moztutako belarra bildu ahal izateko. Zelaiaren kokapena ere garrantzitsua da. Aukeratzerakoan kontuan izan behar da segalarien herrietatik hurbil egotea, komunikaziorako sareetatik ere bai, lurrik altuera desberdinak izatea ikusleek goragotik hobeto ikusi ahal izan dezaten,

zoruan harririk ez izatea eta belarra ugari. Baldintza hauek guztiak direla eta, pixkanaka zelai batzuk nagusitu dira azken garaiotan. 1918tik 1936ra bitartean, Gipuzkoan futbol zelai asko eraiki zela aprobetxatuz, udan lehiaketa askotarako erabili izan ziren. Azken hamarkadetan norgehiagoka ugari Hernanin ospatu dira, Jauregi baserriaren “Etxe Atzea” izeneko zelaian, Galarreta pilotalekuaren inguruan.

Lehiaketa gehienak udazkenaren hasieran antolatzen ziren. Belarra ugaria zen eta segalariak ondo entrenatuta zeuden, udan baserrietan egindako lan guztiaren ondorioz. Probak ziren zeinek belar gehiago moztu denbora jakin batean. Garai batean 2 orduko saioak egiten ziren, baina gaur egun ordu betetik gora ez da luzatzen. Hirurogeigarren hamarkadan aldatu egin zen apusturako sistema eta garaipena puska jakin bat denbora laburrenean mozten zuenarena zen. Berriro ere, ordea, garai bateko sistemara itzuli ziren.

Ezagutzen dugun lehenengo segalaria JOSE ITURRIOZ “Labisu” dugu, asteasuarrera, 1860an hil zena.

SEGA HERNANIN

Segalari hernaniarren lehendabiziko berriak 1928koak ditugu. Anselmo Arbide aipatzen da, garai hartan ospetsua zen Juan Kortajarena “Ondartza” asteasuarren aurka apusturen batean parte hartu zuelako.

1955ean agertu zen hain izen handikoa izandako Migel Irazusta Goikoetxea “Polipaso”. Aizkolaria eta segalaria izan zen hernaniar hau atleta handia zen eta gaina hartu zion Astigarrako Jose Agustin Senperenari Iturriotzen. Irailaren 4an jokatu zen apustua eta bi orduz Polipasok 5954 kg moztu zituen eta kontrarioak, berriz, 5762.

Antton Erauskin “Etxetxo” Lasarte-Oriakoa, orain dela urte gutxi arte Hernaniri lotua, Euskadiko txapelduna izan zen.

BOLA-JOKOA

Hauxe da, zalantzarik gabe, Euskal Herriko kiroletatik mundu mailan zabalduena dagoena. Euskal Herrikoaren berezitasuna pisua eta tamaina dira. Inglaterran, esaterako, 3 kilo pisatzen ditu eta gureak, berriz, zazpitik bederatzi eta erdietara bitartean. Euskal kiroletan indar fisikoak duen garrantziaren adierazgarria.

4 MENDEKO BIZITZA

Txapeldun zaharren izenak ez ditugu ezagutzen. Joko hau baserri inguruko baino hirikoa da gehiago. Hirietatik sagardotegietara joaten ziren igande arratsaldeetan atseden pixka bat hartzen eta bertan ibiltzen ziren jokoan. Bertsolariek maiz aipatzen zituzten hauen izenak bertsoetan, baina idatziz ez zaigu gelditu. Zenbaitek dioenez Euskal Herrian bizirik dauden kiroletatik zaharrena dugu hau, 4 mendeko antzinatasuna baitu.

Euskal Herrian bi atal bereizi behar ditugu nabarmen, Bizkaia eta Gipuzkoa alde batetik, eta Araba bestetik. Bizkaian eta Gipuzkoan hiru modalitate daude gaur egun: bola-ahurra, irutxulo eta eskuzulo. Azken bi hauek dira bertakoak eta lehena, berriz, inguruko herrialdeetatik etorria da.

Eskuzulo izeneko modalitatea Gipuzkoa eta Bizkaiko ipar-ekialdeko eremu batera mugatu da. Modalitate honen galera sagardotegi zenbait desagertzearekin lotuta dago, bolatoki txiki bat izaten baitzuten ohiko bezeroentzako. Gaur egun asko dira estalitako bolatokiak, eguraldi txarrarekin ere norgehiagokak egiteko aukera ematen dutenak.

Irutxulo da zabalduen dagoen modalitatea. Gipuzkoako mendebaldea hartzen du, Bizkaia ia osorik eta Araba, azken honetan zenbait berezitasunekin herriaren arabera.


Bolatokiaren barreneko neurriak hauek dira: luzera 24,70 metro, zabalera 2,50, altuera 0,35; bola botatzen deneko oholak 5,50 metroko luzera du eta 0,23ko zabalera; birlak jartzen direneko harlauza lauki formakoa da, 1,5 bider 0,25eko lodie-rakoa. 9 birla jartzen dira botatzeko eta beste txikiago bat ere egoten da bolatokian “txaparro” izenekoa eta bola botatzerakoan ez jotzen saiatzen direna.

BOLA-JOKOA HERNANIN

Aspaldikoa da Hernanin joko honetarako zaletasuna eta gaur egun hiru klub daude: C.D. HERNANI, ELUR-TXORI eta UR-MIA.

BASERRI BAKOITZEAN BOLATOKIA

Ur-Mia elkartekoek diotenez “garai batean baserri bakoitzean bolatoki bat omen zegoen”. Ulergarria, beraz, joko honekiko zaletasuna.



Bolatoki de Añorga.

Ugaldetxo ingurueta: Etxolaberri (Hernaniko urrutieneko baseria), Minak, Igerola-Goikoa eta Behekoa, Benta Berri (Ugaldetxo) eta Aranon. Ereñotzu ingurueta: Txokolatenea, Airosa, Alkatxuin, Latxe, Arriurdiñeta, Goikoetxe (Bi bolatoki, gaur egun desagertua), Fagollaga (desagertua) eta Irubidietan (urtero San Antoniotan lehiaketa bat antolatzen da). Harlauza-baldosa dagoen leku gutxienetakoia izango da. Ereñotzun ere bolatoki bat zegoen estaligabea eta gaur egun beste bat estalia, Gipuzkoako onentsuenetakoia.

Hernanin dauden hiru klub hauetan datu ugari dituzte bola-jokoak ingurukoak, esaterako, garai guztietako onenak izan diren bolariek Hernaniko bi seme dira (Celestino Izagirre eta Luziano Gorostegi), eta azken mende erdian edo gehiago kiro-lari hernaniarrak dira garaipen handienak lortu dituztenak.

Bolari ospetsuak: Prontxio eta Leandro Miner, Fermin Zabaleta, Celestino Agirre, Joxe eta Pedro Santa Kruz, Patxi Perurena, Joxe Oiarbide “Txilibita”, Joxe Manuel Bengoetxea, Xanti Gorrotxategi, Arregi anaiak (Agustin, Inaxio eta Pablo), Rufino eta Tiburtzio Izagirre (zendua), Joxe Manuel eta Joxe Agustin Arregi “Putrone”, Berrondo anaiak, Pedro Erdozia, Ramon Iraola “Kapote”, Agustin Oiarzabal, Leokadio Isasa, Joxe Mari Garin, etab.

TITULUAK

C.D. HERNANI

TALDEKA:

Gipuzkoako txapeldunak izan dira azken urteotan: 1996, 1997 eta 1998.

BANAKA:

Jose M^a Usabiaga: Besteak beste, probintzia mailako txapelduna izan da modalitate guztietan: banaka, taldeka, erregulartasunean, binaka eta Lehendakariaren Trofeoa ere irabazi du.

Migel Arrozpide: Hernaniko txapelduna: 1973, 1980 eta 1990. Gipuzkoako txapelduna: 1980 eta 1989. Estatu mailako txapelduna: 1973. Beste hainbat titulu eta ohorezko postu txapelketa desberdinetan.

Beste hainbat bolari ezagun: **Alejandro Usabiaga, Antonio Larrañaga, Nikolas Osaba, Juan Goenaga, Inazio Ugarteburu, Jose M^a Erdozia, Migel Arraras, etab.**

ELUR TXORI

TALDEKA:

Gipuzkoako txapeldunak: 1971, 1972, 1973, 1981 eta 1982

BANAKA:

Joxe M^a Zelarain: Gipuzkoako txapelduna: 1969

Joxe Furundarena: Gipuzkoako txapeldun: 1973, 1975 eta 1976

BINAKA:

Migel Burugain - Joxe Ugalde: Gipuzkoako txapeldunak: 1977
Eusebio Zabalegi - Joxe Ugalde: Gipuzkoako txapeldunak: 1980

Beste bolari ezagun batzuk: **Klaudio Esnaola, Pako Zelarain, Joxe Agustin Arrieta, Fernando Galarraga, Joxe Zapirain, Xabier Otegi, Aurelio Santos, Bittorio Aldaz, etab.**

UR MIA

BANAKA:

Antonio Miner: Erregulartasunean txapelduna: 1973, 1996
Gipuzkoako txapelduna: 1976, 1993
Hernaniko txapelduna: 1992, 1995, 1996, 1998
Lehendakari txapelketa: 1983, 1994

BINAKA:

Antonio Miner - Migel Arrozpide: Gipuzkoako txapelduna: 1984 eta 1985

Juanito Oiarbide, Pello Santa Kruz, Xabier Huizi, Ibon Miner, Xanti Gorrotxategi, Iñaki Miner: txapelketa desberdinetan garaile eta ohorezko postuak.

AIZKOLARIAK

Mendiarekin zerikusia duten ogibideen gunea izan da Euskal Herria eta horren berri ematen diguten agiriak aurki ditzakegu jadanik IX. mendean. XIII. mendeaz geroztik, berriz, mendiaren inguruan jarduera garrantzitsu bat ematen denaren testigantzak ere badaude. Menditik bizi direnen artean, beraz, sortu eta hedatu ziren aizkolari-probak. XVI. mendekoak dira aizkolariei buruzko lehen berriak.

Aizkolari-probak 3 motakoak izan daitezke: bi aizkolarien arteko norgehiagoa, askoren arteko txapelketa edo erakustaldi hutsa.

Aurkitu dugun idatzizko lehen aipamenak 1802. urteko ekainaren 7an Hernaniko plazan izandako apustua dakarkigu. Hain zuzen, Elizaren eskuhartzea medio hitzartutako norgehiagoka bat izan zen: Ramon Elizalde nafarra, aizkolari ospetsua bera, batetik eta Astigarragako Hernandorena gaztea, Aranoko basoan zuhaitzak mozten aritzen zena, bestetik.



Miguel Irazusta "POLIPASO" junto con el enseñador "Ustarguille". Tolosa, 1967.

Apustua, berriz, honakoa: 36 ontzako (kana 1/3) 15 enbor nork moztu lehenago. Apustua Fagollagako bentan egitekoa zen. Benta horretako ohiko bezeroak ziren herniar apaiz batzuk zenbat denbora beharko zuten asmatu nahian zebiltzan eta aizkolari nafarrak hara zer erantzun zien: apaizak meza emateko baino denbora gutxiago beharko zuela. Hortik bigarren erronka bat sortu zen.

1802. urteko ekainaren 7an, beraz, Hernaniko plazan, apaiza meza ematen ari zen bitartean aizkolari-norgehiagoka egin zen. Mezak 25 minutu iraun zituen, Hernandorenak 15 enborrak mozteko behar izan zuen denbora bera. Aizkolari nafarrak, ordea, 23 minutu pasatxo erabili zituen solik bere lana egiteko eta, hortaz, berak irabazi zituen bi apustuak.

XX. mendearren erdialdera, aizkolari ospetsuenen artean, Miguel Irazusta “Polipaso” dugu. “Polipaso” 1925. urtean jaio zen Abaltzisketan, baina Hernanin bizi izan zen. Erakustaldi ugari egin zituen eta apustu nahiz txapelketa anitz ere irabazi zuen.

PILOTA

Joku unibertsal honek euskaldunen kirol praktikan bere islada izan zuen. Joku hau bi eratan sailka daiteke: zuzenakoa eta zeharkakoa. Zuzenekoan bi aurkari aurrez aurre jartzen dira (bakarka edo taldeka) sare batez bananduak. Zeharkakoan, berriz, bi aurkariak joku eremu berean jartzen dira eta pilota horma baten errebotatuta etortzen da. Gure herrian praktikatzen diren era zuzenekoak kanpotik etorritako kulturen eragina izan dezakete. Aldiz, zeharkakoek gure herrian sortuak dira, eta hemendik beste kulturetarra exportatuak. Beharbada aintzenean bi joku-era hauek sorburu bera izango zuten, baina denboran aurrera eboluzio independientea eta diferentea jasan dute.

Honegatik guztiagatik, zuzenagoa da “euskal pilota”z hitz egitea. Edozein modutara, ez du garrantzi handirik pilotak borobil-grekoarekin edo “paume” frantzesarekin antzarik edukitzea, uka ezina baita euskalduna, arbasoetatik jasotako, pilotaren joku guztietara ederki egin dela eta maila handira eraman dituela beste herrian desagertzen zen bitartean.

Euskal pilotaren hasieraz ikerketa asko egin dira, baina ez dago euskal pilotaren hasiera noizkoa den esaten duen datu zehatzik.

Kontutan pilotaren jokua zuzenekoak eta zeharkakoak bezala sailkatu direla era bakoitzerako hainbat modu aipa ditzakegu:

JOKU ZUZENA

“Palma larga”:

Bote luzea: eskuz jokatzen da, aurreko mendeetan, aurreko eta alboko parentarik gabe.

Laxoa: aurrekoaren antzekoa, baina larruzko eskularruarekin eta plaza handiagotan.

Mahai-jokua: sakea mahai baten gainetik egiten da.

Errebotea: modu honetan plazak bi zati ezberdin ditu, sakerako nahitaezko horma eta jokuan aurrera egiteko horma aukeran.

“Palma corta”:

Pasaka (trinkete): trinketean jokatzen da, baina erdian sarea jartzen da eta trinketeak dituen zaitasun guztiak aprobetxatzen dira.

Pasaka (arkupe): aurrekoan bezala jokatzen da, baina arkueen egiturak dituen zaitasunak erabiliz.

ZEHARKAKO JOKUA

Pilota aurreko paretetik datorrenean. Sailkapena frontoi motagatik edo era-biltzen den tresnaren baitan dago.

- a) **Aurreko pareta besterik ez duten plazak.** Plaza libre edo agirikoa deitzen zaie. Hauek 1875. urte arte iraun zuten, Iparraldean oraindik aurki daitezke.
- b) **Alboko pareta duen frontoia.** Pareta beti ezkerretan izaten da eta batzuk erreboterako pareta ere badute, trinketean salbu, honetan eskuinekoa ere erabiltzen baita. Plazaren taimanean ezberdintzen dira bi frontoiak.
- c) **Frontoi motza:** luzeran 30 / 35 metro arte. Eskuz, sare, pala... rako era-biltzen da. Pisu gutxiko tresnak erabiltzen dira eta pilotak ez dira oso biziak.
- d) **Frontoi ertaina:** 45 metro arte. Huetan palaz eta larruzko pilotekin edo tresna indartsuagoekin jokatzen da. Pilotak aurrekoan baino bizigoak iza-ten dira.
- e) **Frontoi luzea:** 60 metro arte. Mota honetako frontoia zesta-punta, erre-monte eta palaz jokatzeko izaten da, erabiltzen diren pilotak ukitu handi-koak dira.

Tresna kontutan hartuta:

- **Eskuz:** Edozein plazatan jokatzen da, era zuzenekoetan (bote luzea edo mahai jokua) nahiz zeharkakoetan (Plaza librean edo ezkerreko pareta duen frontoietan).
- **Pala:** Hainbat jokuerak: Pala luzea frontoi ertain eta motzetan eta larruzko pilotekin jokatzen da. Paleta zabala eta paleta argentina frontoi motz eta triketeetan jokatzen da eta gomazko pilotak erabiltzen dira.
- **Larruzko eskularrua:** Eskularru luze nahiz motza edozein plazetan era-biltzeko tresna. Gaur egun gutxi erabiltzen da, bakarrik erabiltzen da zuzeneko jokuetan errebotean, laxoan, trinketeko pasakan eta ezker pareteko frontoietan.
- **Txistera:** Gaur egun plaza libreetan erabiltzen da. Zesta-punta eta erre-montea ezker paretako frontoietan erabiltzen da.
- **Sare:** Toki aproposa trinketea da, frontoi motzean ere joka daiteke.

- **Raketa:** Ezker pareta duten frontoi ertainetan jokatzen da, larruzko nahiz gomazko pilotekin. Ez da euskal jokua bezala hartzen, raketa ez baita inoiz Euskal Herrian erabili.

PILOTA HERNANIN

Orain dela 95 urte erroboteko frontoia zegoen, gaur egungo frontoiaren ezker paretatik hasi eta Birebentarren etxeraino zen. Billabona, Zubietako Iparraldeko beste herrien kontra jokatzen zen. Aipagarritzeko da turista asko etortzen zirela, batez ere ingelesak.

Hernaniko taldean besteak beste nabarmenzen ziren: **Arbelaitz, Etxebeste, Bizkarrondo eta Ricardo Toledo.**

Eskuzko pilotan bereizi behar dira: **Rekondo anaiak** (estatuko txapeldunak), **Zumalakarregi, Fermin Zugasti, Galdeano, Zubillaga anaiak (hiru), Narciso Zapirain, Arcadio Lucas, Juanito Polain, Emilio Antón** eta beste asko. Garai hauetan pilota izan zen Hernanin gehien jokatzen zen kirola.

Eskuzko profesionaltan **Joaquin Arbelaitz** nabarmendu zen, eta erremonte-an, berriz, **Gumersindo Pérez (Pasieguito)** garai hartako figurak ziren Irigoien, **Beorlegi, Arzamendi, Vega, Abarrategi...**ren aurka jokatu zuena.

Palan **Javier Adarraga** txapelduna izan zen, eta bera izan zen Errioxako Pilota Federazioaren sortzaile eta lehendakari. Logroñoko frontoia bere orioimenari eskaini zitzzion.

TXIRRIA

1918 ETA 1946 URTE ARTEAN IZEN ZEN EZAGUNA TXIRRIA


Baina zer izan zen txirria? Txirria ez zen frontoi bat. Txirria elizaren atzeko hormez osatutako lekua zen. Han ibiltzen ziren pilota jokuan oso modu zehatz eta ikusgarrian.

Trinketeek edo frontoiek egitura jakin bat izan behar dute bertan txapelketa bat ospatu ahal izateko. Gainera hauek eraiki egiten dira:

Ez horrela, aurretik eginak dauden beste zenbait leku. Hala nola, udaletxe azpiak, arkueak, elizako atariak e.a. Honelakoa izan omen zen Hernaniko eta ez beste inongo txirria. Han eskuin hormaz aritzen ziren eta ez ezkerrekoaz, oraingoetan bezala. Gainera frontisa estua eta oso garaia zuen.

Jokurik ikusgarriena, gainontzeko pilota jokuetan bezalaxe, aurreko koadroe-tan egiten zen. Hauetan *basarri, horma txikia* eta *ezker horma* izeneko txokoak izaten ziren. Azkeneko *bi pareta* hauetan egiten zuten bi pareta bezala ezagutzen duguna, baina pilota eskuin aldera atera beharrean, gaur eguneko frontoietan gertatzen den bezala, ezkerretera ateratzen zen, noski.

Baziren bestalde, *danbor, fraile, leihoa* eta *txirri* izenak pilota joku honetan. Azken hau adibidez, txirria, gune konkordun bat zen. Txoko honetan egiten zituzten pilotari trebeek beren *dejadak* pilota txirriaren kontra zegoen musika-kioskoan uzteko asmoarekin.



*Ultimos campeones del “txirri”:
Felix Zugasti y Antton Urruzola*

1918an hasi omen zen jokua txirrian

“Veterano” batzuk diotenez, 1918 urte inguruan hasi zen pilota jokua txirrian, baina 1923 arte ez zen txapelketarik ospatu. Ramon Zumalakarregi eta Fernando Zubiria izan ziren lehenengo txapeldunak. Azken hau Errealeko jokalaria ere izan omen zen 1927 urtearen inguruan.

Dirua ere ikusten zen ordurako. Batzuk 250 pezetaraino ere jokatzen omen zitzutzen. Dirutza ederra garai hartarako.

Izen batzuk esateko: Zugasti, Galdeano, Zubillaga anaiak, Erdozia anaiak, Julio Avalos, Lucio Egaña, Ramon Zumalakarregi, Fernando Zubiria, Emilio Anton, Felipe Redondo, Felipe Apaolaza, Damian Otamendi, Blas Tejedor, Pedro Sarriegi, Jesus Egiguren, Nicolas Ruiz, Jose Aranalde, Kaska, Kano, Zubeldia anaiak, Mujika, Antonio Arbelaitz, Arbide anaiak, Carmelo eta Manuel. Azken honek botila batez, pala estiloan, jokatzeko trebezia zuen.

Hauen ondotik: Joaquin Gomez, Juanito Apaolaza, Ignacio Domingo, Asensio Erdozia, Juanito Arrondo, Jesus Azurmendi, Jose Ormazabal, Damaso Uria eta beste zenbait.

Nahiz eta beste batzuk ere ibili txirrian, hauek omen ziren, besteak beste, *espezialistak*. Hauen arteko partidetan tanto batzuk ematen omen zizkieten *espezialistak* ez zirenei ventaja moduan edo maila pixka bat berdintze arren. Beste batzutan bikotea, zapi batez, esku edo hanka bana lotuta edo *derreves* ibiltzen ziren ikusleen gozamenarako.

1936ko finala

1936 urteko finalean Joaquin Gomez, Jose Ormazabal, Juanito Apaolaza eta Damaso Uria aritu ziren historia egin zuen partida batean. Izan ere, udaltzainek etorri behear izan zuten eta hurrengo egunerako utzi behar izan zen gaua gainera etorri zitzaielako. Azkenean, hurrengo egunean, Joaquin Gomez eta Jose Ormazabal atera ziren txapeldun.

Guda aurretik txirrian aritutako zenbait, ondoren ere ibili ziren. Eta hauen ondotik etorri ziren Jose Arrieta, Pasieguito, Sabino Aldasoro, Antxon Idarreta, Prudencio Zubiarain, Daniel Carrera, Juan Jose Iruretagoiena, Joaquin Garmendia, Juan Martin Lanbide, Francisco Iraola, Manolo Sanz, Pablo Benito, Antxon Urruzola, Felix Zugasti.

Txirri jokalari hauetako askok txapeldun eta txapeldun ordeko izan dira urtean zehar.

Txirriak, historian zehar izan duen *ohorezko koadroa* ezin badugu eman ere, ezagutzen ditugu lehenengo urteko finalisten izenak, baita 36koak ere eta azken urtekoak, hau da, 46koak. Antxon Urruzola eta Felix Zugasti izan ziren azken hauek Karlos Sanz eta Pablo Benitorri irabazi ondoren. Hala suertatu ziren txapeldun oso larri lortu bazuten ere, aurreko partidoan Ignacio Domingo eta Francisco Iraola menperatu ondoren.

Hau izan da Hernanin, garai batean, izena eta ospea izan zuen txirriaren istorioa.

LUISTARREN TORNEOA

Afizionatu mailan “Luistarren” txapelketa Gipuzkoako torneorik importanteena zen. Tilosetako frontoia jendez gainezka egoten zen. Finala ekainaren 21ean jokatzen zen, San Luis egunean. Garai hartako pilotarien eskaparatea izaten zen txapelketa hau. Luistarrek antolatzen zuten troneoa.

Torneo hartan nabamentzen ziren pilotariak ziren: Usandizaga anaiak, Joxe Balantxza, Zapirain, Ramiro Loyarte, Daniel Carrera, Ansa, Leandro Lujanbio, Retegui I, Atano X, Tapia anaiak, Vergara, Galarza...

60. hamarkadan, 1964an hain justu, **Apezetxea-Lazkano eta Tomasena-Izagirre** jubenilak Donostiako Kopan txapeldun eta txapeldunorde atera ziren. 1924an estatuko txapelketan Recondo anaiak txapeldunak izan ziren. 1965ean Gipuzkoako txapeldunak **Bengoetxea eta Salaberria** izan iren.

Aurrerago hainbat torneo eta txapelketetan nabarmendu ziren: **Carrera, Lujanbio, Apezetxea, Esnal, Ezpeleta...**

1978an, Gipuzkoako herriarteko torneo ospetsuan txapeldunorde gelditu zen Hernani, pilotariak ziren: **Zubeldia, Arnaiz, Urretabizkaia, Rekalde, Lekuona, Martin, Garayar...**

Erremontean Intxarburu bereizi zen, parejatan 1.go mailako txapelduna izan baitzen.

Azkenik, 1999an, Hernani herriarteko torneoan txapeldunorde izan zen, pilo-tariak: **Uzkudun, Santa Cruz, Oiaga, Zabala, Yubero, Enorzena**.

Esan gabe ezin utzi, Pilota Eskolan ari diren 60 gaztetxoak etorkizuneko figurak izan daitezkeela.

HARRI-JASOTZEA

Harri-jasotzea erabat lotuta dago hargin-lanbidearekin. Aspaldi, hargintzako tailerretan, hargin-maisuaz gain, hainbat zeregin konstruktibotan espezializatutako beste ofizial batzuk aurki zitezkeen, hala nola: hozka-lanetan, berun-lanetan, zinbrian eta zurgintzan adituak, harri-jotzaileak hargin-mutilak, laguntzaileak eta peoiak.

Peoiek harrobitik zetozen harriak alde batetik bestera eramatzen zituzten. Horretarako, jakina, beharrezkoak zen indartsua eta sendoa izatea. Peoi hauen arteko lehiatik sortu ziren, hain zuzen, harri-jasotzearen inguruko apustuak. Apustu horiek entzute edo ospe nabaria zuten obren maisuen agindupean zeuden hargintzako taillerretan egon ohi zirenen artean.

Harri-jasotzean 3 mota bereiz daitezke oro har: norgehiagoka, txapelketa eta erakustaldi hutsa.

Harriak jasotzen aritu izan zen inoiz Isidro Ollokiegi “Eltxekondo” hernaniarra, 1878. urtean jaiotakoa. Gizon indartsu honek hainbat kiroletan parte hartu zuen eta, gehienbat, pultsulari bezala jardun arren, 12 arroako (arroa 1 = 12,5 kg) harri kubikoak altxatzen ere ibili zen noizbait.

KORRIKALARIAK

Mendeetan gizon zein emakume euskaldunak Euskal Herriko bideak oinez egiten zituzten. Artzain, ikazkin, baserritar eta arrantzaleen artean ohikoa zen egunero kilometro asko egitea. Baserrian ekoizten zena, itsasoan harrapatzen zena... azoketan saltzen zen, eta noski, gaur egungo tokialdaketa-moduak ez zeudenez, dena oinez egiten zuten. Egunerokoa zen ariketa honek ibiltari nekaezinen arraza egin zuen, eta beste herri kiroletan gertatzen den bezala, besteekin neurtzeko grina eta aisia bilatu zuen.

Korrikalarien artean egiten ziren apustuen berri XVIII. mende hasieratik ditugu. Ezagunak izan ziren **Igarabidetarrenak**, Beteluko Juanagorri baserrikoak, eta **“Juanagorri”** bezala deituak. Mendearen bukaeran, Arruizko (Nafarroako Larraun bailaran) **Francisco Etxarri “Juansarrena”** korrikalaria garai hartako ospetsuena izan zen.

Erabiltzen zuten janzkera, arraro eta traketsa zen. Galtza motzak, kotoizko galtzerdiak eta espartinekin ibiltzen ziren. Buruan zapia lotzen zuten eta eskuetan makil motz bat eramatzen zuten.

Lasterketak ez ziren inoiz taldeka egiten, beti biren arteko apustuak ziren; eta zer esanik ez, tartean diru dexente izaten zela. Apustuak ohiko gauza ziren, eta korrikalariek jarraitzaile asko izaten zituzten, bere gogokoari jarraitu eta bere alde apustua egiteko. Garai honetan korrikalari gehienak Nafarroako mendialdeko eta

Gipuzkoarekin muga egiten zuten herrietakoak ziren. Korrikalari ospetsuenak Amezketa, Lizartza, Berasategi, Azkarate, Betelu, Azpiroz, Errazkin, Lekunberri, Arruiz, Huizi...koak ziren. Gipuzkoan Aia izango da populazioaren arabera korrikalari gehien eman zituena. Bizkaian nabarmendu ziren korrikalariak, berriz, Sebastian de Agirre, Durangokoa; Francisco Makazaga, Nabarnizkoa; Antonio eta Francisco Etxeberria, Markinakoak; Gardoki, Elorriokoa; eta Baltasar Lopetegi, Erandiokoa.

Garai batean Betelu-Ordizia, Betelu-Lakuntza, Betelu-San Migel de Aralar ibilbideak ohikoak ziren, baita ere Tolosa-Iruñea-Tolosa Aralar mendikateetik barrena. Beranduago, apustuak kamioetatik zezen plazetara pasa ziren, eta egoera honek aldeketak ekarri zituen. Lasterketa toki itxian eta borobilean egiteak ikusleentzat abantaila batzuk ditu, kamioetara atera gabe erosoagoa baita toki beretik korrikalariak proba guztian jarraitzea.

Bizkaia eta Gipuzkoan antolatzen hasi ziren atletismo eta afizionatuen crossak aldaketak garrantzitsuak ekarri zituen, batez ere, lasterketan zehar denborak neuritzeko eran eta janzkeran. Korrikalariek abarkaren ordez espartina, felpazko kamiseten ordez konpetizioko kamiseta eta berna erdiko galtzaren ordez kiroletako galtza erabiliko dute.

Zezen plazetan egiten ziren apustuek 70. hamarkada arte jarraitu zuten, orduz geroztik atletismoa, herri-cross-ak ugaritzen joan ziren eta plazetako apustuak jeisten. Beraz, bi korrikalarien arteko apustuak kamio eta plazetatik desagertu da.

HERNANIKO KORRIKALARIAK

Nabarmendu ziren korrikalari hernaniarren berririk ez dugu, Miguel Sukunza aipatzen ez badugu behintzat. Sukunza Leitzakoa zen baina Hernanin bizi zen. 40. hamarkadan Juan Cruz Azpiroz "Txikito de Arruiz" eta Pedro Albeniz "Iruntxiberri"ren aurka lehiatu zen. 1950. urtean Lino Aldalur "Pikua"ren aurka 10.000 metrotan 35 minututik jeistea lortu zuen.



Atletas de ambos性os del C.A. Urumea de Hernani en el Primer Maratón de San Sebastián.
De izquierda a derecha: Otegui, M. Irastorza, Lujambio, P. Aguado, J.M. Murua (tapado), Tere Avila, G. Esnaola (detrás de Tere), E. González, Rosi Talavera, Maite Iraola, S. Alejos, Baldomero y J. Arrieta.
Rosi Talavera 3 h 27'44'' vencedora y Evaristo su entrenador el mismo tiempo. 15 de octubre de 1978.

ADARRAGA FAMILIA

Hernanin Adarraga familia eta kirola sinonimoak dira. Egiten zituzten kirol guztietan nabarmentzen ziren, oso atleta onak zirela erakutsiz. Kirolean (batez ere atletismoan) lortu dituztenak aipatzen hasita orrialde batzuk beharko lirateke. **Luis Adarraga Gorrotxategi**, kirol askotan ibilia. **Ramon Adarraga Gorrotxategi**, 1914an Gasteizen egin zen lendabiziko crossean garaile. **Jose Adarraga Gorrotxategi**, cross-eko korrikalari nabarmendua eta C.D. Hernaniko lehen lendakaria. **Jose Luis Adarraga Elizaran**, 1942 eta 1946 bitartean estatuko txapelketa unibertsitarioetako hainbat proben garailoa, horien artean pentatlon-en. Erreleboetan ere hainbatetan estatuko txapelduna izateaz gain, saskibaloian eta rugbyan bere maiala ona erakutsi zuen.

Juan Bautista Adarraga Elizaran, bere garaian “estatuko klase handiena zuen atleta” kontsideratua. Bere garaikur eta meritu artean aipatzekoa da 1948an Londresko Joku Olinpikoetan 800 eta 1500 metro lisoetan parte hartu izan zuela. Horregatik ditu C.D. Hernanik bere eskuduan aro olinpikoak. **Bernardo Adarraga Elizaran**, behin baino gehiagotan decatlonean estatuko txapelduna, eta 1953an espezialitateko errekorra lortu zuen. 1955ean Bartzelonan egin ziren Mediterraneoko jokuetan txapelduna eta recordmana, estatuko atletismoanurrezko domina lortu zuen.

Fernando Adarraga Elizaran 17 urterekin pertigan estatuko txapelduna. 4,20 metrotan recordmana. Beiruten (Libano) egin ziren Mediterraneoko jokuetan zilarrezko domina irabazi zuen. Santiago de Chilen egin ziren “I Juegos Atleticos Iberoamericanos”n zilarrezko domina lortu zuen eta Romako Joku Olinpikoetarako selezionatua izan zen.

ATLETISMOA HERNANIN

Adarraga familiaz gain nabarmendu ziren atletak: **Modesto Macazaga**, 1919an Behobia-Donostia irabazi zuen. Eraunzeta eta Modesto Macazagak 1921ean Santanderren egin zen federazioen arteko txapelketa irabazi zuten. Gerra zibilaren aurreko nabarmendu ziren beste atletak izan ziren: **Ricardo Cormenzana, Isidro Tejedor, Francisco Cormenzana, Aduriz, Aranburu** eta abar.

Gerra zibilaren ondoren nabarmendu ziren: **Juan Bautista Erize, Venancio Diez Arana, Manuel Gonzalez, Nicasio Azkue, Alejandro Arrozpide, Santiago Agirre, Jose Luis Rivilla, Eusebio Rekondo, Jose A., Fermin Cuesta, Antxon Adarraga, J. Intxausti, J. Montero, F. Gonzalez, Santiago Perez Elustondo, Ochotorena eta Francisco Zelarain**. Azken hau 800 metrotan hiru aldiz estatuko txapelduna izan zen. **Ayerra, Sukunza** (korrikalien apustuak eta pistako lasterketak egiten zituen), **Garin, Escudero, Irizar, Agirre, Pedro Esteban, Julian Garmendia eta Felix Bidegi** (1954an 3000 metro obstakulosetan estutuko txapelduna) eta hainbat eta hainbat atleta.

Atletismoaren barruan eta “cross-country”n (cross bezala ezaguna) Hernanin praktikatzen hasi zenetik berizi beharko lirateke Gipuzkoako txapeldunak ian ziren: **Miguel Sukunza** (1946) **Jose M^a Garin** (1948 eta 1949) eta **Patxi Irizar** (1951, 1952, 1954, 1955 eta 1956).

1958tik aurrera zer esana eman zuten atletak izan ziren: **Evaristo Gonzalez** (hainbatetan Gipuzkoako txapelduna; garaile izan baita ere: 1960an Lasarten, Jubenilen kategorian egin zen Nazioarteko Crossean; 1963 Sheffield-en; eta horretan

bereak, zoritzarreko istripua izan baitzuén. **Agustin Barrio, Juan Miguel Erdozia, Vicente Etxarri, antonio Gomezz, Olaizola anaiak** (Luis, Ignacio eta Manuel). Ignacio, mailu-jauritzalea, 1964 estatuko jubilinen txapelduna izan zen eta, junior zela, Kantauriko Jokuetan eta Parisen FISECren jokuetan irabazi zuen.

Aken 25 urtetan puntan ibili direnak: **Gaspar Esnaola, Jose Miguel Murua, Pello eta Juan M^a Garin, Gabriel Ormazabal** eta beste asko eta asko, hemen aipatuko ez ditugunak tokirik ez baitgenuke.

Emakumezkoen artean esan genezake 1972an sortu zela lehendabizikoz emakumeen ekipoa eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuela, bakarkako sailean Ina Olabiderekin eta ekipoetan **Ina Olabide, Brigida Morete eta Asunción Molinarekin**. Aurrerago nabarmendu ziren **Susana Irazusta** (Adarragatarra, Carmen Adarraga Elizaranen alaba, berau ere oso kirolari trebea izana); **Rosi Talavera** (distantzia ezberdinetan marathon barne, garaikur eta errekor asko lortua probintzi nahiz estatuan); Maria Luisa Irizar, (Patxi Irizarren alaba) hau ere atleta bikaina, marathon eta beste distantietan lorpen eta errekor asko lortu dituena probintzian eta estatuan. **Presen eta Conchi Campos, Arantxa Bakero, Izaskun Errazkin...** etab.

Laburpen moduan, zaharrenetik aurrera, aipatuko ditugu internazionalak izan diren hernaniarrak:

Juan Bautista Adarraga, Bernardino Adarraga, Fernando Adarraga, Patxi Irizar, Félix Bidegi, Francisco Zelarain, Antonio Agirre “Saka”, Evaristo Gonzalez, Gisela Stuchtemaier, Ignacio Olaizola, Brigida Morete, Susana Irazusta, Rosi Talavera, Pello Garin, Gaspar Esnaola, Javier San Martin eta M^a Luisa Irizar.

ELTZEKONDO, FIGURA HANDIA

Isidoro Olloquiegui “Eltzekondo” gizon indartsu eta grekoromanan borrokalarri bikaina izan zena 1878ko urtarrilaren 2an jaio zen Hernanin. Oso gaztetatik atleta ona omen zetorren. Soldaduska egitera joan zenean, 119 kilo pisatzen omen zituen eta 119 centimetroko gerrialdea. Anekdoa moduan, soldaduskako hasierako 23 egunak bere blusarekin egin omen zituen, koartean bere neurrikorik ez zegoelako. 119 kilo pisatu arren, koartean 100 metrotako probetan aurkaririk gabe gelditu omen zen, espezialista guztian erraz menderatz.

Soldaduska bukatuta, pilotan aritu omen zen, herriko hoberenak erraz menderatz. Ondoren, pultsoan pisuak jasotzeari ekin omen zion; baina laister utzi behar izan zuen, berarekin neurtzeko aurkaririk gabe gelditu zelako. Erakustaldiak egiten hasi zen eta bitxikeria moduan Andoainen gertatutakoa ekarriko dugu.

Eltzekondok, orduan 23 urte, bi eskuekin 134 kilo eta ezkerrarekin bakarrik 100 kilo jasotzen omen zituen. Ikustaldiak pertsonentzat sobran zena ganditzen zuela eta, alkateak bertan behera uztea erabaki omen zuen.

Orioko Arratolak, aurkaririk ez zuela-eta bere burua txapeldun jo nahi omen zuen; baina ,bere ustea eta poza joan omen zitzaion, Eltzekondo Orion azaldu zenean 1.000durotan apustua jasoz. Beste behin, Bilbon egin zen torneo batean gure atletari ez omen zioten parte hartzen utzi. Txapeldunak 110 kilo jaso omen zituen bi eskuekin eta, gainera, ezkerrarekin marka hura hautsiko zuela desafioa eginez. Ez zuten bere desafioa onartu.

Erakustaldi batean, argazkia bat bada, 142 kilo jaso zituen.

Apolon izeneko frantzes batekin, erakustaldia Bilbon egiteko, apustua egin omen zuen. Baino Apolon hau, 150 kilo jasotzen zituela jakina omen zen, garaiz erre-tiratu zen. Nolakoa ote zen hernaniar honen indarra?

Ergobiako festetan, inork kusten ez zuelakoan, bi erruedatako gurdi baten ardatza jaso omen zuen. Muntongorri baserriko batek ikusi omen zuen, eta hurrengo goizean gurdia pisatzeko kuriositatea izan, eta, Eltzekondok 170 kilo jaso zituen.

Isidoro Olloquieguik, 34 urterekin, jiu-jitsu eta grekorromana praktikatzen hasi zen.

Eltzekondok eta bere lagun minak, Javier Ochoak, jira bat egin zuten Penintsulako hiri importanteenetan. Bilbon hasi ziren, garai guztiako borrokalarri ospetsuen aurka, esaterako, De Riaz, Grenna, Constant Le Marin, Masseti, etab. Orduan Eltzekondok 135 kilo pisatzen omen zituen. Ondoren Parisera joan omen ziren eta segidan Hego Ameriketara. Kontratu asko izan omen zitzuzten.

1926an, 48 urterekin, utzi omen zuen kirola, izugarritzko hazaÒak egin ondoren. Garai hartako figura izan zen eta bere oroitzapena ahaztezin eta legendarioa egin da.

PASADIZUAK

Pasadizuren aukeratzen zaila bada ere, 1910ean gertatutako bat ekarriko dugu. Koadrilen arteko eztabaidea batetik atera zen apustu bat hain zuen ere. Apustua zen, ea nork egiten zuen denbora gutxienean Sta. Barbara eta Plaza Berriko tartea, partehartzaile bakoitzak nahi zuen modalitatean eta nahi zuen bidetik egin zezakeen.

Apustuan hiru lagunek hartu zuten parte:

- * Patxi Arrozpide (Arri-Goain baserrikoa)
- * Miguel "Kankarro" (Marcos Zubeldiaren osaba)
- * Fernando Barriola (Barriola baserrikoa)

"Kankarro"k eta Barriolak korrika egin zuten bidea eta Patxi Arrozpidek, berriz, pertiga saltoan. Patxik 5 metrotako makila erabili zuen (militarrek kainoiak kargatzeko erabiltzen zutena), eta biderik motzena aukeratu zuen (gaur egun harrobia dagoen tokitik, garai hartan ez baitzegoen). Tramu guztian, kolpeak leuntzeako, belarrez betetako zakuak jarri zituen.

Apustu Patxi Arrozpide Oiarzabalek irabazi zuen, eta hauek dira neurututako denborak:

SANTA BARBARA ERMITA - PLAZA BERRI

* PATXI ARROZPIDE OIARZABAL	3 minuto 57 segundu
* MIGUEL "KANKARRO"	7 minuto 15 segundu
* FERNANDO BARRIOLA	10 minutiuta 22 segundu



Patxi Arrozpide Oiartzabal

DEPORTES, DESAFIOS Y APUESTAS

El deporte vasco es juego y es trabajo, desafío o competición que prolonga y sublima algunas faenas cotidianas. Trabajo sobre trabajo, que comienza en las manos de aquellos artesanos que elaboran los instrumentos para el ejercicio de nuestros deportes.

Pocos pueblos poseen tanta inclinación como el vasco a convertir en apuesta cualquier confrontación, sea de habilidad, de inteligencia o de fuerza. Desde niños, a la menor discrepancia, los escolares se encaran con la frase “¿Cuánto te apuestas?” en prueba de desafío. Y es que por medio de la apuesta, el juego y el deporte se abren a la participación: todos, de una u otra manera, se sienten implicados en el envite.

Así nacieron la mayoría de los deportes rurales vascos (“**herri kirolak**”): dos o varios vecinos apostaban cierta cantidad por ver quien cortaba más troncos (“**aizkolariak**” a golpe de hacha, o “**tronzalariak**” con sierra), levantaba piedras más pesadas (“**harrijasotzaileak**”), segaba mayor extensión de hierba (“**segalariak**”), quien arrastraba más rápidamente piedras con sus bueyes (“**idi-proba**”) o con su propio cuerpo (“**gizon-proba**”), o portaba pesas de un punto a otro (“**txingalariak**”)… Juegos todos ellos de evidente origen rural y, por ende, individuales, que gozan de bastante popularidad hasta la fecha.

La mayoría de las fiestas y ferias de pueblos y ciudades de la provincia proponen pruebas de este tipo, y en cualquier momento del año se dirimen apasionantes desafíos entre “**aizkolariak**” y entre “**harrijasotzaileak**” que desde semanas antes merecen la atención de los medios de comunicación y de la opinión pública.

Por su originalidad, mencionamos aparte los concursos y demostraciones de perros de pastor, herencia de la tradición pastoril de estas tierras. El más afamado es el que se celebra cada otoño desde 1959 en Oñati, cuyas campas se llenan a rebosar de visitantes de toda Euskal Herria. Lo que aquí se premia no es sólo la destreza del perro para correr el ganado, sino sobre todo la compenetración entre pastor y perro para ofrecer un magnífico espectáculo.

Orgullo de las villas costeras guipuzcoanas es contar con una trainera campeona: las regatas (“**estropadak**”) protagonizan el calendario deportivo del verano, primero a través de las pruebas diarias, más tarde con las eliminatorias de la Bandera de San Sebastián y finalmente sus apoteósicas finales, para las que se desplazan a la capital miles de ciudadanos con todos los aderezos propios del buen hincha (camisetas, banderas, cornetas, sirenas...). Los componentes de la trainera ganadora reciben a su regreso a la localidad de origen una entusiasta acogida de todo el pueblo y de sus corporaciones municipales. Las embarcaciones de Orio, Zumaia, Getaria, Hondarribia, Pasaia y Donostia-San Sebastián, muy especialmente, han vivido sus momentos de supremacía provincial, que una vez adquirida deben contrastar con las mejores tripulaciones vizcaínas.

En las traineras, como en los restantes casos, las apuestas corren en casi todos los ámbitos de la vida social guipuzcoana. Es un fenómeno curioso sobre el que conviene insistir. El guipuzcoano ama el deporte, pero diríase que le estimula aún más la competición cuando los dinerillos aparecen sobre la mesa, sin que ello acarree

merma alguna de la deportividad congénita de los aficionados. Buen ejemplo del nexo deporte-apuesta es el ciclismo (“**txirrindulariak**”). Como es sabido, este territorio ha sido y es cantera de grandes ciclistas profesionales que han hecho historia, las pruebas que aquí se organizan tienen la máxima categoría internacional (Vuelta al País Vasco, Clásica de San Sebastián, Seis Horas de Euskadi de pista) y en homenaje a su afición, el Tour de Francia partió de Gipuzkoa el año 1992. Pues bien, las tres grandes carreras por etapas se siguen año tras año con auténtico furor: los bares atestados a primera hora de la tarde para ver el final de las etapas, la actividad muchas veces casi paralizada, los transistores encendidos, pero también, y no es menos significativo, las “porras” que se organizan en las empresas, los establecimientos públicos, los hogares...

